

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**Iragarkia, zeinaren bidez publiko egiten baita Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak Lehendakariari eskumenak eskuordetu dizkiola**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, Mahaiaren 2021eko uztailaren 13ko Erabakia argitaratzen da:

Lehena. Arabako Batzar Nagusietako lehendakariari eskuordetzea Arabako Batzar Nagusietako itzulpen-, zuzeketa- eta interpretazioa teknikariaren hautaketa-prozesuko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko eta erreklamazioen epea irekitzeko eskumena.

Bigarrena. Eskuordetza hau eskuordetutako egintzarekin bukatzen da eta ez dakar berekin eskumenen titulartasuna transferitzea, ezpada eskumenak baliatzea. Eskuordetza bidez hartutako ebazpenak berariaz adierazi beharko du inguruabar hau, bai eta zein den eskuordetza egiten duen organoa eta eskuordetzaren argitalpen ofiziala.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 13a

*Legelari nagusia*

**JOSÉ RAMÓN GARCÍA PLAZAOLA**